

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

316/2020 Foru Agindua, abenduaren 29koa. Onartzen duena ekainaren 1eko 107/2020 Foru Aginduan ezarritako baldintzak bete direla (107/2020 Foru Agindua, ekainaren 1ekoa, zeinaren bidez behin betiko onetsi baitzen, zenbait baldintzarekin, AMVISAK Iruña Okako udalerrian, zehazki, Langraiz Okan, duen Ur Hornidurako Azpiegitura Berriaren Plan Bereziaren espedientea)

AURREKARIAK

Lehenengoa. Ekainaren 1eko 107/2020 Foru Aginduaren bidez, behin betiko onetsi zen, zenbait baldintzarekin, AMVISAK Langraiz Okan duen Ur Hornidurako Azpiegitura Berriaren Plan Bereziaren espedientea.

Bigarrena. 107/2020 Foru Aginduak berak, kontuan hartuz aipatutako baldintzak ez zirela funtsezkoak, ezarri zuen ezen, behin zuzendutakoan, aurkez zekiola espedientea Foru Aldundiari berriro ere jendaurrean jartzeko izapidea bete beharrik gabe, behin betiko onestearren, bete beharrekotasuna adieraztearren eta zegozkion eginbideak egin eta argitaratzearren.

Hirugarrena. 2020ko azaroaren 3an, Aldundi honen Erregistro Orokorrean sarrera eman zitzaion espedientearen testu bateginari.

OINARRIAK

Aurkeztutako agiriak aztertu dira, eta egiaztatu da bete direla foru agindu horretan ezarritako baldintzak.

Horregatik, eta dagozkidan eskumenez baliatuz,

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Betetzat ematea ekainaren 1eko 107/2020 Foru Aginduan ezarritako baldintzak (107/2020 Foru Agindua, ekainaren 1ekoa, zeinaren bidez behin betiko onetsi baitzen, zenbait baldintzarekin, AMVISAK Iruña Okako udalerrian, zehazki, Langraiz Okan, duen Ur Hornidurako Azpiegitura Berriaren Plan Bereziaren espedientea).

Bigarrena. Aldaketa puntuala Arabako Hirigintza Plangintzako Administrazio Erregistroan sartzea.

Hirugarrena. Ebazpen hau ALHAOn argitaratzea hirigintzako araudiarekin batera.

Laugarrena. Administrazio bidea agortzen duen ebazpen honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsioa aurkeztu ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietarako Salan. Horretarako, bi hilabete izango dira, ebazpena jakinarazi edo argitaratu ondorengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko abenduaren 29a

Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatua
JOSEAN GALERA CARRILLO

**HIRIGINTZA ARAUDIA, AMVISA-K LANGRAIZ OKAN DUEN UR
HORNIDURAKO AZPIEGITURA BERRIAREN PLAN BEREZIARI BURUZ****LEHENENGO TITULUA. XEDAPEN OROKORRAK****1. artikulua. Aplikazio eremua**

Plan Berezi hau Plan Bereziaren dokumentuan definitutako eremuan aplikatuko da. Eremu hori dokumentazio grafikoan deskribatuta eta memorian justifikatuta dago.

2. artikulua. Indarrean jartzea eta indarraldirako baldintzak

Plan Berezia argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean, behin betiko onesteko erabakian legez ezarritako betekizunekin, eta indarrean jarraituko du indargabetzen ez den bitartean.

Plan honetako xedapenen bat baliogabetzeak, ezeztatzeak edo aldatzeak ez du gainerakoen baliozkotasunean eraginik izango, salbu eta horietakoren bat aplikaezina bada haien arteko lotura edo mendekotasuna dela-eta.

3. artikulua. Gauzatzeko betekizun orokorrak

Plan Berezi honen edukia gauzatzeko, hirigintza arau hauetan adierazitako urbanizazio proiektua behin betiko onestu beharko da alde zuzenetik.

4. artikulua. Plan berezia eratzen duten agiriak eta horien araubide irismena

Plan Berezi honek hurrengo dokumentuak biltzen ditu:

1 DOKUMENTUA. MEMORIA

2 DOKUMENTUA. HIRIGINTZA ARAUDIA

3. DOKUMENTUA. GAUZATZEA KUDEATZEKO GIDALERROEN AZTERLANA

4 DOKUMENTUA. EKONOMIA ETA FINANTZA BIDERAGARRITASUNAREN AZTERKETA

5 AGIRIA. JASANGARRITASUN EKONOMIKOARI BURUZKO MEMORIA

6 DOKUMENTUA. PLANOAK

Plan Berezi honen arau edukia berau osatzen duten dokumentuen multzoak definitzen badu ere, antolamendu planoek eta hirigintza arau hauek betetzen dute hirigintza jarduera arautzeko berariazko eginkizuna, eta, beraz, jarduera hori nahitaez egokitu beharko da haien zehaztapenetara.

Gainerako agiriak informazioa edo azalpenak emateko dira. Beraz, aurretik aipatutakoekin alderatuta kontraesanik egonez gero, aurrekoek izango dute lehentasuna.

Era berean, hirigintzako zehaztapenen baten zehaztapenean eskala desberdinetako planoak bat ez badatoz, eskala zehatzagoan egindako planoetan ezarritakoa lehenetsiko da.

Ordenantza hauetan jaso ez diren antolamendu orokorreko kasuetan Iruña Okako udalerriko planeamenduko arau subsidiarioak edo agiri berrikusiak izango dira arautzaile.

BIGARREN TITULUA. HIRIGINTZA ARAUBIDEA**1. KAPITULUA. LURZORUAREN KALIFIKAZIO XEHAKATUAREN ARAUBIDEA****5. artikulua. Kalifikazio aplikagarriaren araubidearen definizioa**

Plan Bereziaren eremuak lurzoru urbanizaezineko ur hornidurako azpiegituren sistema orokorraren kalifikazioa ezartzen du.

6. artikulua. Zonifikazio kodea

Plan berezian zona hauek ezarri dira:

1. Bide zorreko zona BZZ
2. Aldi baterako okupazio zona. ABOZ
3. Azpiegituraren osagaiaren zona AOZ

Eremu horietako bakoitza O.1 ARAU SUBSIDIARIOEI BURUZKO HIRIGINTZA ERREGULAZIOA plano seriean eta O2 ERAGINAK JABETZAN plano seriean adierazita dago, eta Zonen araudi partikularra atalean dago araututa.

2. KAPITULUA. PLAN BEREZIA GARATZEKO PLANEAMENDU ARAUBIDEA**7. artikulua. Plan berezia gauzatzea**

AMVISA enpresa publikoak sistema orokorra urbanizatzeko eta eraikitze obrak egingo ditu, bai eta lotutako desjabetze proiektua kudeatu ere, eta desjabetzearen eta azpiegituraren onuraduna eta azken jabea izango da.

Plan Bereziaren eremuan sartuta dauden jabeak adierazitako azaleren aldi baterako okupazioen mende daude, baita proiektuan jasotako sistema orokorreko bide zorra ezartzearen mende ere. Afekzio horiek ekonomikoki konpentsatuko dira lotutako desjabetze proiektuaren arabera.

Urbanizazio proiektua bakarra izango da eremu osorako, eta urbanizazio obrak egiteko faseak ezarri ahal izango ditu.

8. artikulua. Hirigintza proiektuak

Urbanizazio proiektu bakarra idatziko da Plan Bereziaren eremurako, eta bertan azpiegitura publikoaren behin betiko trazadura eta ezaugarriak adieraziko dira Bertan, obrak gauzatzeko faseak adieraziko dira.

Urbanizazio proiektuak ezin izango du plan bereziaren aurreikuspenak aldatu, obren gauzatze materialean zehar lurzoruaren eta zorupearen ezaugarriek eskatzen dituzten egokitzapenak egin ahalko dituzten arren.

Zehaztapen egokitzapenak dakarrenean lurzoruaren edo proiektuak afektatutako finken eraikuntzaren antolamenduari edo araubideari dagozkion erabakiak eraldatzea, plan horren kasuan kasuko aldaketa onartu beharko da, aldez aurretik edo aldi berean.

3. KAPITULUA. PLAN BEREZIA GARATZEKO HIRIGINTZA JARDUKETAREN ARAUBIDEA**9. artikulua. Plan berezia garatzea eta gauzatzea**

Proiektu honen garapena eta gauzatzea 3. DOKUMENTUA. GAUZATZEA KUDEATZEKO GIDALERROEN AZTERLANA agirian ezarritako hirigintza jarduketaren araubidera egokituko da.

HIRUGARREN TITULUA. ARAU BEREZIAK ZONETARAKO**10. artikulua. Bide zorreko zona (BZZ)**

Plan Bereziak, besterik adierazi ezean, bide zorraren 5 metroko zerrenda bat mugatzen du (2,5 m proiektatutako hodiaren ardatzaren alde banatan). Bide zor horretan ez da egongo azpiegituraren segurtasunari eragin diezaiokeen eta mantentze eta konponketa lanak egiteko sarbidea eragotz dezakeen elementurik.

Zortasun eremuari oro har aplikatzen zaizkion erabilera muga horiek alda daitezke eremu hori lurzoru urbanizaezinaren honako kategoria hauei gainjartzen zaien eremuetan:

Bide komunikazioen babes zonan:

Herrilan eta Garraio Sailak ezarritakoa beteko da, Arabako Foru Aldundiaren jabetzako bi-deen segurtasuna bermatze aldera.

Trenbideko komunikazioen babes zonan:

ADIF enpresak ezarritakoa beteko da, Madril-Irun trenbide azpiegituraren jabea baita.

Basoko eta lehengoratu beharreko zonan:

Baso masaz estalitako eremua denez, zortasun eremuari ematen zaion tratamenduak, ahal den neurrian, dagoen landaredia babestuko du.

Araudi grafikoa:

Bide zortasuneko Eremua (BZE) antolamendu planoetan islatzen da, udal planeamenduaren (O.1) definitutako lurzoru urbanizaezinaren kategorizazioari eta partzela eremuari (O.2) dagokienez.

11. artikulua. Aldi baterako okupazio eremua (ABOE)

Oro har, sortutako bide zortasuneko eremuaren bi aldeetan, 5 m-ko bi banda mugatzen dira obra gauzatzeko aldi baterako okupazioa egiteko.

Aldi baterako okupazio eremuari oro har aplikatzen zaizkion erabilera muga horiek alda daitezke eremu hori lurzoru urbanizaezinaren honako kategoria hauei gainjartzen zaien eremuetan:

Bide komunikazioen babes zonan:

Herrilan eta Garraio Sailak ezarritakoa beteko da, Arabako Foru Aldundiaren jabetzako bi-deen segurtasuna bermatze aldera.

Trenbideko komunikazioen babes zonan:

ADIF enpresak ezarritakoa beteko da, Madril-Irun trenbide azpiegituraren jabea baita.

Basoko eta lehengoratu beharreko zonan:

Baso masaz estalitako eremua denez, zortasun eremuari ematen zaion tratamenduak, ahal den neurrian, dagoen landaredia babestuko du. Obra egin ondoren, zuhaixkak edo zuhaitzak landatuko dira aldi baterako okupazioko bandetan.

Baso zona eta substratu hauskorreen leheneratu beharrekoan.

Obra egin ondoren, zuhaixkak edo zuhaitzak landatuko dira aldi baterako okupazioko bandetan.

Araudi grafikoa:

Aldi baterako okupazioko zona (AOZ) antolamendu planoetan islatzen da, udal plangintzan definitutako lurzoru urbanizaezinaren kategorizazioari (O.1) eta partzelarioari (O.2) dagokienez.

12. artikulua. Azpiegiturako elementuen gunea (AEZ)

Bereziki ,plan bereziak azpiegitura osatzen duten elementu jakin batzuk mugatzen ditu, hala nola: zundaketa puntuak eta horiek eraikinean egokitzea, balbulak dituzten kutxatilak eta beste batzuk.

Azpiegiturako elementuen zona behin betiko desjabetuko da. Haien gainean, ur hornidurako azpiegiturarako sistema orokorra osatzen duten elementuak dauzkaten eraikuntza txikiak definitu ahal izango dira. Eraikuntza horiek ezingo dira izan oinplanoan zedarritutako eremua baino handiagoak ez eta solairu bat baino gehiago eduki, eta haien neurriak bat etorriko dira erregelamenduetan ezarritako baldintza teknikoekin.

Eraikinak lurzoru urbanizaezinean daudenez, haien formei eta materialei dagokienez ingurunean integratu beharko dira eta ahalik eta ikusizko inpaktu txikiena eragin beharko dute.

Hauek dira azpiegiturako elementuen zona osatzen duten elementuak:

- AEZ-1. Hustubide balbularen ganbera.
- AEZ-2. Hutsaren aurkako balbularen ganbera.
- AEZ-3. Hustubide balbularen ganbera.
- AEZ-4. Hutsaren aurkako balbularen ganbera.
- AEZ-5. Hustubide balbularen ganbera.
- AEZ-6. Hutsaren aurkako balbularen ganbera.
- AEZ-7. Hustubide balbularen ganbera.
- AEZ-8. Lehendik dagoen hodiarekin lotzeko azken puntua.
- ZEI-9. Torka errekan dagon zunkaketa puntua.
- AEZ-10. Hustubide balbularen ganbera.
- AEZ-11. Hutsaren aurkako balbularen ganbera.
- AEZ-12. Balbula ganbera.
- AEZ-13. Hustubide balbularen ganbera.
- AEZ-14. Hutsaren aurkako balbularen ganbera.
- AEZ-15. Hustubide balbularen ganbera.
- AEZ-16. Menesiarren ikastetxearen ondoan dagoen zundaketa.
- AEZ-17. Hustubide balbularen ganbera.

Araudi grafikoa:

Azpiegiturako elementuen zona (AEZ) antolamendu planoetan islatzen da, udal plangintzan definitutako lurzoru urbanizaezinen kategorizazioari (O.1) eta partzelarioari (O.2) dagokienez.

13. artikulua. Planeamendu orokorrean definitutako ustezko arkeologia zonetako baldintzak

Arau subsidiarioen 193.1.7 artikulua xedatutakoa beteko da. "Arkeologia aztarnak daudela uste den zonetan eta eraikinetan, jabeak edo egin nahi diren lanen sustatzaileak orube edo eraikuntzaren arkeologia balioari eta lanen proiektuan izan dezakeen eraginari buruzko azterlana egin beharko du. Azterlana egin ondoren, Arabako Foru Aldundiak erabakiko du arkeologia proiektua beharrezkoa den ala ez eta, guztia ikusirik, obra lizentziaren alde aurreko baimena emango du. Arkeologia proiektua idatzi eta egikaritzeari dagokionez, Euskal Kultura Ondarearen 6/2019 Legearen 67. Artikuluan aurreikusitako dirulaguntza araubidean ezarritakoa beteko da.

14. artikulua. Lurzati gainera eraginen lotura

Plan Bereziaren 1. eranskinean eta jabetzetan eragindako afekzioen planoen seriean (O.2.1-5) zonakateak araututako lurzatiak eta bide zortasunak (BZZ), aldi baterako okupazioak (ABO) eta azpiegiturako elementuen (AEZ) behin betiko desjabetzeak eragindako azalera deskribatzen dira. Nolanahi ere, behin betiko azalera dagokion urbanizazio proiektuan jasoko dira.

15. artikulua. Ingurune fisikoaren gaineko inaktuaren babes, zuzenketa edo konpentsazio neurriak

Proiektua idaztean eta obra gauzatzeko fasean, kontuan hartu beharko dira ingurumen ja-sangarritasunaren dokumentuan zehaztutako babes, zuzenketa edo konpentsazio neurri guztiak.

Neurri horiek, funtsean, obra egitearekin lotuta daude, eta honela laburbiltzen dira:

Obra egin aurreko fasea.

1. Obrak eragindako azalera mugatzea.
2. Makinen parkerako zona espezifikoak mugatzea.
3. Ustekabeko isurketen kasuan, lurzorua ez dela kutsatuko bermatu beharko da.
4. Landare lurra eremu babestuetan pilatuko dira, eta aldian-aldian ureztatuko dira.
5. Aurretik, azterlan geotekniko bat egingo da.
6. Ur edo hezetan iturburuak dituzten eremu guztietan izango da drainadura.
7. Obra egin aurretik, lurzoruaren kalitatea ikertzeko eskatuko da.
8. Zuinketa fasean, zuhaitzetan izango duen eraginari buruzko txostena egingo da, Europar Batasunaren intereseko habitatetan eragina saihesteko.
9. Ingurumena zaintzeko diziplina anitzeko talde bat kontratatuko da.
Obraren egikaritze fasea:
10. Hautsa sor dezaketen obra eremuak ureztatzea edo hezetzea.
11. Toldoak erabiltzea hautsa sortzen duten materialak garraiatzen dituzten kamioietan.
12. Bideetan metatutako hauts ohantzeak kentzea.
13. Makinen IAT berrikustea, mantentzea eta betetzea, gasen eta partikulen isurketak murrizteko.
14. Makina isilak erabiltzea baloratuko da.
15. Zarata sortzen duten eremuak, ahal dela, ahalik eta gehien bereiziko dira jendea bizi den urbanizazio edo baserrietatik.
16. Lur pilaketak zarata gehien sortzen duten eremuen inguruan kokatuko dira, babes akustikoa hobetzeko.
17. Ingurumena eta paisaia leheneratzeko neurrien aurrekontua egingo da.
18. Landaredi potentziala gara dezaketen espezieak erabiliko dira, adibidez, mendi garriga.
19. Kaltetutako eremu guztiak leheneratuko dira, lurzorua ez galtzeko.
20. Makinen mantentze lanak eremu iragazgaiztuetan egingo dira.
21. Landare lurra geruzak kontserbatuko dira paisaia leheneratzeko fasean aprobetxatzeko.
22. Lur pilaketak obra eremuan edo landaretzarik gabeko eta drainatze errazeko eremuan egingo dira.
23. Landare lurra 1,5etik beherako altuerako metatan bilduko da.
24. Ingurumen lehengoratzea obrak amaitu eta gero egingo da, espezie exotiko inbaditzaileak ugaritu ez daitezen.
25. Lur soberakinak, lehenik, eskatzen dituzten eremuetara eraman beharko dira, eta, halakorik ezean, baimendutako betelanetara.
26. Ustekabeko isurketen arriskuak kontrolatuko dira.
27. Lurpeko urak babestea. Eremuko maila freatikoak eta haren eraikuntza zehaztapenak zehazteko azterlan geoteknikoa.
28. Tokiko eskulana erabiltzea.
29. Kaltetutako zerbitzuak berriro jartzea.

30. GR-25 eta GR-282 ibilbide berdeen trazadura berrezartzea.

31. Kutsatutako lurzoruak ikertzeko programa. Kutsatuta egon daitekeen lurzati hartutako lurzatiari dagokionez, ikerketa programa bat egingo da, kutsadura dagoen ala ez egiaztatzeko.

32. Usteko arkeologia gune gisa identifikatutako zonan, hots, Billodako kokalekuan, aurretiko arkeologia azterlan bat egin beharko da, eraikuntza prozesuan arkeologian aditua den pertsona bat han dagoela, lanen kontrol arkeologikoa egiteko.

33. Ingurumen Zaintza Programa egitea.

Proiektua idaztean eta obra gauzatzeko fasean, ingurumen memorian zehaztutako babes neurri, neurri zuzentzaile edo konpentsazio neurri guztiak hartu beharko dira kontuan:

1. 1. Kutsagarriak izan daitezkeen jarduerak edo instalazioak izan dituzten edo dituzten lurzoruen inbentarioan kalifikatutako zabortezi zaharraren lurzatiari dagokionez, Plan Bereziaren esparruan aurreikusitako obrak hasi aurretik, ikerketa programa bat egingo da kutsadura dagoen ala ez baieztatzeko. Programa hori lurzoruaren kutsadurari buruzko gidaliburu praktikoan oinarrituta egingo da. Gidaliburu hori IHOBek idatzi du. Material kutsatua dagoela egiaztatzen bada, obrak hasi aurretik zehaztu beharko da kendu beharreko materiala nola manipulatu eta nora eraman, indarrean dagoen araudiaren arabera. 2. Ikerketaren helburua izango da kutsadura eta horren mailak antzematea eta erabilera onargarriak eta beharrezko deskontaminazio sistemak zehaztea, bermatzeko ez dagoela kutsadura horri lotutako arriskurik eraikuntza lanak egingo dituzten langileentzat eta eremu horretako erabiltzaileentzat. 2. Hortik ateratako ondorioak eta gomendioak garapen planeamenduaren dokumentazio espezifikoa gehituko zaizkio. 2. Lurzoruaren kalitatea ikertzeko azterlanek ondorioztatzen badute b ebaluazioko balio adierazleak (VIE-B) gainditzen dituzten substantzia kutsatzaileak daudela, ingurumen organo eskudunak jendaurrean jarriko ditu hamabost egunez. 2. Epe horren ondoren, ingurumen organoak lurzoruaren kalitatearen adierazpenaren ebazpen proposamena egingo du, eta interesdunei eta Iruña Okako Udalarari bidaliko die. 2. Alegazioak aurkezteko epea igarotakoan, ingurumen organoak ebazpena emango du, lurzoruaren kalitatea adierazteko. 2. Ebazpenean adieraziko da lurzoru kutsatuta, eraldatuta edo eraldatu gabe dagoela. 2. Ebazpen horretan oinarrituta, plan bereziaren sustatzaileak dagokion moduan jardun beharko du.

2. Plan Bereziaren aldi baterako eta behin betiko eragin eremua 2. alternatibari dagokiona izango da, IJTko 01 "aukeren mapa" planoan ageri dena. Egiaztatu da hoditeriaren trazadura, eta beraz, Plan Bereziaren eremua, bideetatik edo zuhaixka edo zuhaitz landaredi naturalik ez duten eremuetatik igarotzen dela.

Nolanahi ere, saihestu egin behar da zeharkako ekintza jakin batzuek landaredi naturalari eragitea; beraz, hornidura azpiegituraren trazadura, material pilaketak eta makineria eta ibilgailuak zuhaixka edo zuhaitz landaredi naturalik ez duten eremuetatik pasako dira. Horri dagokionez, adierazi behar da proiektua aldatzen bada, aldaketa guztiak jakinarazi behar zaizkiola Ingurumen Organoari, aldaketa horiek gauzatu aurretik, ebaluatu eta ingurumenaren gaineko ondorioak baimendu ahal izateko. Era berean, Plan Bereziaren eremuko ingurumen sentikortasuneko zonetan, hau da, hornidura hodia asfaltatutako bide edo errepedetatik igarotzen ez den eremuetan, landaredi naturalean eragina sortzea saihestu beharko da.

Bereziki garrantzitsua da Plan Bereziaren eremuaren ekialdeko landaredi naturalean; izan ere, bertan hodia landaredi naturalez (*Quercus ilex*) inguratutako bidezidor estu batetik igarotzen da, eta landaredi horrek artez (*Quercus ilex*) eta haren landare hesi zabalaz osatuta dago, eta bertan ageri dira txaparrak (*Quercus coccifera*), elorri triskak (*Genista scorpius*), hego orreak (*Juniperus oxycedrus*), estrepa zuria (*Cistus albidus*) eta espezie aromatikoak, hala nola ezkaia (*Thymus vulgaris*), erromeroa (*Rosmarinus officinalis*) edo izpiliku fina (*Lavandula angustifolia*). Horregatik guztiagatik, ingurumen sentikortasuneko zona horretan obra egin aurretik, komenigarritzat jotzen da sustatzaileak, udalak eta Plan Bereziaren ingurumen ebaluazioaren esparruko ingurumen organo eskudunak elkarrekin batera in situ zuinketa lan bat egitea.

3. Puntualki eta salbuesenez landaredi naturalari eragin konponezinak eragiten bazaizkie, sustatzaileak landareztatzeke edo ingurumena lehengoratzeko proiektu labur bat egingo du, eta bertan, gutxienez, honako obra unitate hauek jasoko dira, aurrekontuan behar bezala sartuta:

– Modelaketa eta profilaketa xehea egitea eta eite irregularrak dituen luraren azalera leuntzea, horren doiketa fisiografikoa egiteko lur naturalarekiko ukipen guneetan, hondeamakina egokiaren bidez, behar bezalako akabera eman arte, eta soberakinak zamatuta eta garraiatzea hondakindegira kontrolatu batera.

– Landatuko diren eremuetan kalitatezko landare lurrezko geruza jartzea, gutxi gorabehera, 30 cm-ko lodierakoa; hori baino lehen, oinarria eratzeko, zamatzeke, garraiatzeke eta hedatzeko lurra prestatu, aratu eta, azkenik, berdindu behar dira, behar bezalako akabera emateke.

– Inguruneke berezke zuhaxka eta zuhaitz espezieak landatzea (*Arbutus unedo*, *Phillyrea latifolia*, *Ligustrum vulgare*, *Euonymus europaeus*, *Rosa sp.*, *Quercus coccifera*, *Juniperus oxycedrus*, *Quercus ilex subsp. rotundifolia*), sustrai hutsez edo sustrai lurrarekin, zurkaitza behar bezala jarrita, egoki ainguratutako material fotodegradagarriko belarraren aurkako oinarriko babesarekin, 2 urtetik 3 urtera bitarteko gutxieneke iraupena bermatua duena, baita zaintzea eta ureztatzea ere. Zuloaren neurria 0,8x0,8 8x1 m, edozein lur motatan egitekoa, zuloa lurrustelez hobetutako landare lurrez beteta. Sartuta dago hutsarteak betetzea.

– Landaketen erabateke mantentze-lana. Ur eskasiaren aldietan, landaketak ureztatu behar dira, eta ureztaketa bakoitzean 12 l ur erabili behar da landare bakoitzeko; lehen ureztaketan, berriz, degradazio moteleke NPK ongarri kimikoaren 100 gramo erantsiko zaio ureztatzeke urari landare bakoitzeko (3.000 kg/ha). Aurrekoek gain, ondoztatzeak, saratzeak eta joraketak egingo dira, beharrezkoak izanez gero, bai eta inausketa eta adar hilak eta xurgatzaileak kentzea; azkenik, zurkaitzak eta oinarriko babesgarriak berrituko dira.

Oharra. Landare espezie autoktonoen prozesu inbaditzaileak agertzea prebenituko da.

4. Plan Bereziaren esparruan aurreikusitako lanak egiten diren bitartean, sustatzaileak Ingurumen eta Hirigintza Sailari txostenak bidali behar dira dizkio bi hilean behin. Txosten horietan, lanen bilakaera deskribatuko da, eta ingurumenean eragina izan dezaketen gorabeherak adieraziko dira. IJTan eta ingurumen memoria honetan ezarritako neurri babesle eta zuzentzaileen betetze maila baloratuko da.

5. Hornidura hodiaren trazadura igaroko den bideetako batzuk erregistratutako landa bideak dira, eta, beraz, jarduketek dagokien araudia bete behar dute. Ildo horretan, beharrezkoa da sustatzaile Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Garapenerako Zerbitzuarekin harremanetan jartzea, Plan Berezian aurreikusitako jarduerak hasi baino lehen.

6. Hornidura hodiaren trazadurak Zadorraren bide berdearen eremu bat zeharkatuko du; baina, Plan Berezian aurreikusten diren ur hodiak instalatzeko jarduketa horiek gauzatu aurretik, Foru Aldundiko Ingurumen eta Hirigintza Zuzendaritzak zeharkatze hori baimendu behar du, Arabako Lurralde Historikoko Ibilbide Berdeei buruzko urtarrilaren 23ko 1/2012 Foru Arauan zehazten denaren arabera. Halaber, baimen txostenean jasoko dira bidea berrezartzeko bide berdea berrezartzeko neurri zuzentzaile egokiak.

7. Zadorra ibaiaren KBetik hurbilen dagoen Plan Bereziaren hegoaldeke eremuan sartzeko zonak mugatzeko eta balizatzeko aukera ezartze aldera, eta, gainera, ingurumenaren aldetik kalteberena den zonarekin bat eginez, eta urak Zadorra ibaira isurtzen dituen Las Torcas erreka-ondoko zonaren obren ingurumen jarraipen egokia egiteko, ezinbestekoa da horren berri ematea 2000 Natura Sarearen gunearen foru organo kudeatzaileari, gutxienez hamabost egun lehenago.

16. artikulua. Aeronautikako zortasunei buruzko araudia, Sustapen Ministerioko Abiazio Zibilaren Zuzendaritza Nagusiak eskatua

Eranskinetako planoetan irudikatzen dira Gasteizko aireportuko aeronautikako zortasunak zeharritzen dituzten eremuen maila lerroak, AMVISaren jabetzako ur hornidurako sistema orokorraren eremuari eragiten diotenak; maila lerro horiek determinatzen dituzte eraikuntza batek ere gaitu ezin dituen garaierak (itsasoaren mailarekikoak), eraikuntzaren osagai guztiak barne, hala nola antena, tximistorratz, kebidu, aire giro-turbinak, igogailu kutxak, kartelak akabera emateko apaingarriak, eta abar), lursailaren aldaketa nahiz objektu finkoak (postak, antenak, aerogeneradoreak beren palekin, kartelak eta abar). bai eta bideen edo trenbideen galiboak ere.

Edozein igorle irratielektrikok edo beste mota bateko gailuk hegazkinen instalazio irratielektrikoen funtzionamendu normala oztopatzen duten irradiazio elektromagnetikoak sor baditzake, hala nola irratifaro ez-direkzionalak, oztopoentzat mugatutako azalerak urratu ez arren dagokion baimena beharko dute, 584/1972 Dekretuaren 16. artikuluan aurreikusitakoaren arabera (584/72 Dekretua, aeronautikako zortasunei buruzkoa).

Zortasun aeronautikoen jabetzaren eskubideari legezko mugak ezartzen dizkietenez haren funtzio sozialaren arabera, ondorio horietarako eman daitezkeen ebazpenak kalte ordainak jasotzeko eskubideren bat eragitekotan, jada patrimonializatutako eskubideei eragin behar die.

Edozein eraikuntza, instalazio (postak, antenak, aerogeneradoreak- eta haien palak-), eraikuntzarako beharrezko baliabide (eraikuntza garabi eta antzekoak) edo landaketak, alde aurretik, AESA Aire Segurtasuneko Estatuko Agentziaren aldeko erabakia beharko du, 584/72 Dekretuaren 30. eta 31. artikuluetan ezarritakoaren konforme (297/2013 Errege Dekretuak aldatua da Dekretu hori).